# Eskola kirolaren jaia egingo dute bihar Urretxun

Eguraldi ona egiten badu lizeoko jolastokian izango da eta txarra egiten badu kiroldegian

**URRETXU** – Bihar goizean Urola Garaiko eskola kirolaren festa egingo dute Urretxun. 9.30ean hasi eta 13.30ean amaituko da. Eguraldi ona egiten badu lizeoko jolastokian egingo dute eta txarra egiten badu, berriz, Aldiri kilroldegian.

Ikasturte honetan, urritik maiatzera bitartean, aurre-benjamin, benjamin eta kimu mailako haurrek parte hartu dute eskola kirolean. Domingo Agirre, Haztegi, Urretxu-Zumarraga Ikastola, Gainzuri eta La Salle-Legazpi ikastetxeetako ikasleak aritu dira. Antolaketa lanetan, aipatutako ikastetxeak eta Legazpi, Urretxu eta Zumarragako kirol elkarteak eta udalak aritu dira.

Eskola kirolaren antolatzaileen esanetan, ikasturte "oparoa" izan da. "Parte hartze handiko jardunaldi eta entrenamendu saioak izan dira ikasturte osoan zehar. Hori da, hain zuzen ere, helburu nagusia: parte hartzea. Gainera, ez da arazo berezirik izan. Entrenamenduek, partidek eta jardunaldi bereziek arrakasta handia izan dute. Eskola kirola antolatzen dugunok, horrela jarraitzea besterik ezin dugu eskatu".

**500 HAUR INGURU** Aipatu bezala, bihar ikasturte amaierako festa ospatuko dute. "Haur asko elkartuko dira, festaz gozatzeko gogoarekin. 500 bat, gutxi gorabehera. Denboraldi osoan gertatu den bezala, aste honetan ere arazorik ez egotea eta haurrek kirolaz gozatzea espero dugu", amaitu dute Urola Garaiko eskola kirolaren antolatzaileek. – A.Z.



Josu Maroto y Andoni Ormazabal, con el alcalde Jon Luqui.

# Urretxu convoca una beca para impulsar el montañismo

Lleva el nombre de Xabier Ormazabal, montañero local fallecido en el Himalaya en 2004

*Asier Zaldua*

**URRETXU** – En Urretxu han convocado una beca y organizado una fiesta para impulsar la actividad montañera entre los jóvenes. La iniciativa ha partido de Andoni Ormazabal y Josu Maroto y cuenta con el apoyo del Ayuntamiento. Ormazabal y Maroto son hermanos de Xabier Ormazabal y Jon Maroto, dos montañeros fallecidos prematuramente.

El objetivo de la beca es impulsar la actividad montañera entre los jóvenes. Para ello, se apoyarán proyectos de nivel y originalidad que estén vinculados a este deporte: escalada, alpinismo, edición de guías y libros, audiovisuales, mejoras de material de montaña... La cuantía de la beca es de 2.500 euros.

Esta beca está destinada a los jóvenes nacidos después de 1993. Los proyectos se pueden realizar en solitario o en grupo. Las solicitudes se deben presentar antes del 1 de abril del año que viene, en el ayuntamiento de Urretxu. El jurado dará a conocer el veredicto a comienzos de junio del año que viene.

La beca se pagará en dos plazos: el 75% cuando se anuncie su concesión y el 25% restante una vez hayan presentado el trabajo. El plazo para presentar el proyecto finalizará el 1 de junio. La presentación del trabajo deberán realizarla en Urretxu.

Los urretxuarras, además de la beca, han organizado una fiesta de la montaña. Se celebrará el 3 de junio, en el patio del liceo. Por la mañana, de 10.30 a 14.00 horas, tendrá lugar un campeonato de escalada. En el mismo participarán los aficionados locales.

Por la tarde, de 18.00 a 20.00 horas, habrá un desafío de escalada. Los escaladores del valle del Deba se enfrentarán a los del valle del Urola. El equipo del Deba lo formarán Mikel Linazisoro (campeón de Europa), Ander Lasagabaster y Ander Mendieta. El combinado del Urola lo formarán Gorka Karapeto, Esther Cruz y el urretxuarra Erik Molina.

Además, durante toda la jornada habrá juegos para los niños y Josu Maroto y Sebas Velasco pintarán un mural en las paredes del patio del liceo. Los protagonistas del mural serán los Ormazabal y Jon Maroto.

Por la noche, a las 21.00 horas, habrá audiovisuales en el salón Labeaga. Se podrá disfrutar de los últimos proyectos de Karapeto y Alex Txikon. ●

Zumarragan,
LAGUNAK
Igeltseritza
Era guztietako igeltseritzak lanak: kanpo eta barruko erreformak, etxeak, baserriak, teilatuak, fatxadak...
Enpresentzako, partikularrentzako
LAGUNAK Igeltseritza, 607 227151, Zumarraga.

## Gazte Bideanek Lekeitiora irteera antolatu du

**URRETXU** – Gazte Bidean nerabeentzako aisialdi zerbitzuak lau eguneko irteera antolatu du Lekeitioko Trinkete aterpetxera. 2001 eta 2005 bitartean jaiotakoak joango dira (biak barne). Uztailaren 11n irtengo dira eta 15ean itzuli. Prezioa 120 eurokoa da. Parte hartu nahi dutenek ekainaren la baino lehen eman behar dute izena. Zalantzak argitzeko, Gazte Bidean zerbitzuaren telefonoetara dei daiteke: 943 038 827 edo 609 702 708. – A.Z.

## Zarraparrak bi kontzertu antolatu ditu asteburürako

**ZUMARRAGA** – Zarraparra kolektiboak bi kontzertu antolatu ditu asteburürako, Zumarragan. Bihar, 20.00etan, Iker Pirisek eta Blas Piconek blues kontzertua emango dute Aginagan. Bertako elkartean afaltzeko aukera ere egongo da, 15 euroren truke. Txartelak Motz tabernan eta elkartean jarri dituzte salgai. Igandean, 19.30ean, The Arrogants talde frantziarrak Eitzagako baselizan joko du. – A.Z.

## Mintzanet aurkeztuko dute gaur, Zumarragako kultur etxean

**ZUMARRAGA** – Gaur, 19.00etan, Mintzanet ekimena aurkeztuko dute Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean. Mintzanet euskaraz hitz egiteko aukera bat da: noiznahi, edonon eta doan. Mintzanet bidez munduko beste edozein tokitan dagoen jendearekin euskaraz hitz egin ahal izateko, bi gauza bakarrik behar dira: mugikorra, tableta edo ordenagailua eta Internet konexioa. – A.Z.

## Ultimo concierto del ciclo de órgano de Legazpi

**LEGAZPI** – La parroquia de Legazpi acogerá este domingo el último concierto del ciclo de órgano. Dará comienzo a las 19.00 horas. Actuarán la organista Miriam Cepeda y el clarinetista Luis Alberto Requejo. Interpretarán obras de Bach, Rachmaninoff, Rutter, Villalobos, Monti, Gershwin, Verdi y Bassi. Este año ha habido tres conciertos. En el primer tocó Aitor Olea y en el segundo Mila Osinalde. – A.Z.